

KONTROL MOZIOA

GIZARTE ZERBITZUEN ETENGABEKO HOBEKUNTZA DELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko azaroaren 13an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urrian, Udal Gobernuak 2015-2019 gobernu programaren balorazioa egin du, programaren betetze maila adieraziz.

Gizarte-ekintzako atalari erreparatzen badiogu, Udal Gobernuak bere buruari ezarritako helburuak zerrendatzen dira. Deigarria iruditzen zaigu kalifikazio okerrean jasotzen duten helburuak bazterkeria egoeran dauden pertsonen zuzendutakoak izan direla. Izan ere, gure ustez, egoera ahulenean dauden kolektiboak dira gehien babestu behar direnak.

Aurreko legegintzaldian bazterkeriaren aurkako zerbitzuak bultzatzeko esfortzu handia egin zen arren (Gauekoa hobetu, Hestia eguneko zentroa martxan jarri, jantokia ireki Intxaurren eta abar), bi urte bete dituen legegintzaldi honetan ikusi dugu bultzada hori eten egin dela.

Hain zuzen ere, Udal Gobernuak berak egindako balorazioan adierazten da jarritako helburuak ez direla bete: Hestiarako lokal egokia bilatu, apartamentuen eredua zehaztu, Gauekoan hobekuntzak egin, gizarte bazterkeriaren behatokia sortu eta abar.

Era berean, Udal Gobernuak 2018rako egin duen aurrekontu proposamenean ikusi dugu gizarte politikak pisua galdu duela aurrekontu orokorrean. Hain zuzen ere, 2015ean aurrekontu osoaren % 6,63 bideratzen bazen gizarte politikara, 2018ko aurrekontuan % 6,19ra jaitsi da (2 milioi euro inguru). Udal Gobernu honen lehentasuna ez dela seinale.

Hilabete honetan, Gizarte Zerbitzuen Zuzendarien Elkarteak publikatutako datuen arabera, Erreterria da Espainiako Estatuan gizarte politiketan inbertsio gehien egiten duen udala (290,99 euro urtero biztanleko).

Txosten horretan hainbat hiri eta datu azaltzen dira, eta argi ikus daiteke Erreterria, Santurtzi, Arrasate edo Eibarren kasuan, 2016tik 2017ra gizarte zerbitzuetara bideratutako aurrekontuak proportzionalki igo direla.

Donostiaren kasuan, ez dugu konpartitzen Udal Gobernuak atzerapausoa ematea, ezta delegatuak azaroko batzordeetan esandakoa ere: hau da, bere ustez, gizarte zerbitzuak hobetzearen aldeko apustua egiten ari direla.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

- 1.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari beharrezkoak diren neurriak har ditzala urtetik urtera gizarte politikara bideratutako inbertsioa, aurrekontua eta baliabideak hobetze aldera.
- 2.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ez dezala murriztu gizarte zerbitzuetara eta gizarte sustapenera bideratutako aurrekontuaren portzentaia urtetik urtera.
- 3.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bazterkeria egoerak saihesteko baliabideak hobetu eta sustatu ditzala.

Donostian, 2017ko abenduaren 15ean

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia